

Bizi baldintzen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan (1989-2004)¹

Arantxa Rodríguez Berrio

Deustuko Unibertsitatea,
Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola

EUSTAT-eko datuak erabiliz, Arantxa Rodríguez Berrio Deustuko Unibertsitateko irakasleak EAEko biztanleriaren bizi baldintzen bilakaera azaltzen du artikulu honetan. Bertan azaltzen du nola, nahiz eta bizi baldintza horiek denboran zehar hobetzen joan diren, biztanleria gero eta babesgeago ikusten du bere burua ugaldu egin diren gizarte arriskuen aurrean. Nahiz eta, oro har, bizi baldintzek onera egin dutela adierazi, egileak uste du azken bi hamarkadetan krisiaren irudiak lekua kendu diola aurrerakuntzaren irudiari eta, gero eta gehiago izanik zailtasun ekonomikoak pairatzen dituzten pertsonak, familia gunearenganako itzulera bat eman dela dio, bertan ikusten baitute gorabehera ekonomikoen ondorioak arintzeko tresna indartsuena.

1. Egoera sozio-ekonomikoa

la milioi erdi bat urte dira gizakiok lurreen garela, eta hamabi mila nekazaritza agertu zela. Lehenbiziko giza zibilizazio handiak sei mila urte ditu gutxienez, baina industri gizarteek, berriz, soilik behar izan dituzte ehun eta berrogeita hamar urte berealdiko gizarte aldaketa bat egiteko, eta industria osteko gizarteek berrogeita hamar baino ez. Aldaketaren biziagotzeak, ordea, badu bere ordaina, oraingo belaunaldi ezin igarritzakoa datorkielako etorkizuna, aurrekoei baino lausoagoa. Arriskuen gizarte batetik zalantzan bizi den gizarte baterantz ari gara, biztanleriari erasaten zioten estualdiak –hondamendi naturalak, goseteak, izurriteak...– menderagarri bilakatu dira, erraz antzeman edo, behintzat, arindu daitezkeelako, baina oraingo segurtasun faltak dakartzan ondorioak (langabezia, gizarte loturen eta ingurumenaren ahultzea, iraultza teknologikoa, migrazioak...) nekez aurrikus daitezke, ezta haien iturri zehatza zein den hauteman ere, azken batean guk geuk abiatutako gizarte dinamikaren ondorena direlako. Mendebaldeko gizarte esaten zaien hauetan, bada, paradoxa larri baten lekuko gara, gizartean izan daitezkeen gertakizunek, asko eta askotarikoek, indargeago harrapatzen gaituztelako, baita gure bizi baldintzek hobera egiten dutenetan ere.

Ahultasun hori agerikoa da, inoiz ez bezala. Kapitulu honek aztertuko duen garaian, 1989-2004 hamarraldian, artean jasaten zen hirurogeita hamarrekoen erdialdeko krisiak, petrolioarenak, utzitako arrastoa; gainera, neoliberalismoaren hegemoniak bultzatzen zituen oinarri sozio-politikoek (lan alorraren desarau-

¹ Artikulu hau Eustat-ek 2006an argitaratu zuen EAE-ko Txosten Sozioekonomikoaren kapitulu batetan oinarritzen da.

tzea, gizarte itunaren apurtzea, Ongizate Estatuaren zilegitasuna kolokan jartzea, ekonomiaren globalizazioa) bidea prestatzen zuten teknologia modernoetan oinarritutako ekoizpen sistema berriak garatu zitezten eta, lehiakortasuna hazi ahala, lanpostuak desager zitezten edo beren kalitate eta segurtasuna gal zeza- ten. Hamarraldi horrek 1993an bere krisialdia eduki bazuen ere, urtebete geroago berriz ari zen gorako bidean, eta hamarraldi berean herritarrek beren bizi estrategiak egokitu behar izan zituzten harreman sozio-ekonomiko berrietara moldatzeko eta horiek gizartearen eragindako kalteak arintzeko.

Hortaz, gizarte ingurune bat aztertu nahi denean, eta hala egin nahi dugu guk orain lurralde jakin bateko biztanleriak une jakin batean izandako bizi baldintze- kin, kontuan izan behar da egoera hori gizarte proze- su batzuen baitan ikusi behar ditugula, azken batean haien ondorio direlako. Euskal AEko biztanleen bizi baldintzak aztertzean, bada, bistan izan behar dugu zein oinarri sozio-ekonomikok eta politikok itxuratu dituzten laurogeita hamarrekoen hamarraldia eta mende berriaren hasiera Euskal Herrian:

- Ekoizpen prozesuen garapen teknologikoa biziago- tu zen, eta gero eta gehiago erabiltzen dira lan oso konplexuak egin ditzaketen makina-erremintak. Horrek aldaketak eragin zituen lanpostuen eska- rian, eta hasieran, langabezia igoarazi ere.
- Gero eta emakume gehiago agertzen ziren lan mun- dura. Horrekin bat, eraldaketa demografikoak (biz- tanleriaren zahartzea eta jaiotza tasaren jaitsiera) famili eta gizarte sareak birmoldarazten zituen.


- Errotuta dago, iruditegi kolektiboan, gizarte murrizketak halabeharrezkoak direlako ustea eta nork bere kasa moldatu behar duelakoa merka- tuan.

Euskal AEko langabezi tasak urte horietan izan duen bilakaera tarte zabalago batean aztertzen badugu, azken hogeita hamar urteetakoarekin alderatuz ale- gia, ikusten da amaituta dagoela ekonomiaren aldi bat, kapitalaren produktibitatea lanik gabe eta inbertsio teknologikoa hutsari esker hazten zene- koa, eta bestalde, etorri den ekoizpen sistema berria askoz egongaitzagoa dela, inoiz baino beharrezkoa- goak zaizkiolako estatuz gaindiko faktoreak. Sistema malguagoa da, berme gutxiagokoa, lan harremanetan garrantzia galduz doalako gizarte era- gileen arteko ituna.


Ez daukagu 1993ko krisiaren aurreko daturik tekno- logi produktuen kopuruaz, baina krisiaren osteko hamarraldian mota horretako enpresen kopuruak eta langabezi tasak ia bilakaera bera ageri dute, ez halabeharrez, guk uste.

Sistema ekonomikoa berriz sendotzen ari zen, baina era berean ez da ahaztekoa laurogeita hamarretan langabezi tasak altu samar eutsi ziola, 1989ko %18,8 eta 1999ko %15,5aren bitartean, eta goia jo zuenean %24,9ra iritsi zela, laurogeietako tasaren gainetik. Zertan dago aldea? Bada, aurreko hama- rraldian langabezi tasa ez zela ia behin ere jaitsi 20 puntutik, eta hamarraldi honetan, aldiz, tarte labur bat bakarrik iraun zuela.


1. grafikoa. Langabezi tasaren bilakaera Euskal AEn (%)



Iturria: Eustat.



Iturria: Eustat.




Iturria: Eustat.

Langabezi datu haiek bezala, benetakoa zen emakumeak etengabe sartzen ari zirena lan merkatuan. Euskal AEn krisiaren gorrienean ere emakumeek, poliki baina etengabe, lan merkatuan sartzeko ahalginak egiten zituzten, ekoizpen sisteman parte hartzeko joera gero eta sendoago batean. Nahiz eta gizonen baino arrakasta gutxiago eduki horretan, gizon eta emakumeen langabezi tasen arteko aldea hiru puntu murriztu zen hamabost urte haietan. Izan ere, 1989an gizonen langabezi tasatik (%12,6) emakumeenera (%29,8) 17,2 puntuko tartea zegoen, baina handik hamar urtera ebaki hori 12,1 punturari-

no itxi zen, orduko gizonen langabezi tasa %10,6koa zelako, eta emakumeena %22,7koa; mende berria hasita, bi tasen arteko aldea 3,1 puntura beheratu zen (%6,5 gizonetan eta %9,6 emakumeetan).


Hala, bada, biztanle multzo handi bat, gizarte betekizun gisa betidanik beste pertsonen zainketaz arduratu dena, prest ageri da ondasun eta zerbitzu ekonomikoen ekoizpenean lan egiteko, hain zuzen ere demografiaren aldetik biztanleria zahartzen ari denean eta, ondorioz, zainketen beharra dutenak gero eta gehiago direnean.

4. grafikoa. Emakumeen jarduera eta langabezi tasa Euskal AEn (%)



Iturria: Eustat.

5. grafikoa. Bizi itxaropena jaiotzean, sexuaren arabera. Euskal AEn



Iturria: Eustat.


Horiek horrela, inoizko jaiotza tasarik apalenetako bat dugu, eta euskal familien tamainari dagokionez, bizikidetzaren nukleoa hiru pertsonak osatzen dute batez beste.

Gizartearen baitako giroari dagokionez, alegia, biztanleen ustez nolakoak diren kolektibo gisa dauzkaten arazoak, iritzi hori hainbat datuk moldaturik dago: batetik, nola ez, eragina du egoera objektiboki berak, baina baita gizarte eragileek arazo horiei ekiteko modua ere, sinetsirik edo ardura gabe aurre egiten dieten eta zenbateraino uste duten konpon daitezkeela. Talde batek arazo bat garrantzitsua ikusten du errealtateak horretara behartzen badu,

baina ez da ahaztu behar irudipenak norbanakoa-engan sortzen direla, nahiz eta geroko jarrerak eta jokaerek kolektiboaren irudipentzat agerrarazi. Horren arabera, errealtatearen hautemate subjektiboa distortsionatzen bada gerta daiteke arazoaren lehenetsuna ere aldatzea, eta horrenbestez, arazoaren konponbideak ere bestelakotarik ikustea.

Kolektibo batek une jakin batean duen gizarte arazoaren irudipena unean uneko ezaugarri egiturazko, politiko, pertsonal eta kulturalen emaitza da, eragile horiek eta haien elkarreragin aldakorrek baldintzatu egiten dutelako orduko gizarte giroa, eta horrekin bat, gertaera berrien hautematea ere.

6. grafikoa. Jaiotza kopuruaren bilakaera. Euskal AEn



Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika.

2. Bizi baldintzak aztertzearen garrantzia

Bizi baldintzak beti izan dira bizi kalitatea kontzeptuaren zehatzaileetako bat. Izan ere, nahiz eta bizi kalitatea terminoak adiera desberdinak hartu denboran, haietan guztietan bizi baldintzak osagaietako bat izan dira.

Hasieran bizi kalitatea kontzeptuarekin norberaren bizi baldintzen kalitatea adierazten zen, eta geroago, zenbateraino zegoen gogobetarik pertsona hori bizi baldintza horiekin. Ondoren biei erreparatzen zitzairen, baldintza objektiboak eta gizabanakoaren atsegina maila uztarturik, eta azkenik, elkarketa hori norberaren balio, itxaropen eta asmoak gehitu zaizkio.

1. Taula. Bizi Kalitatea. Kontzeptuak: (Borthwick-Duffy eta lag., 1992; Felce, 1995)

<i>Bizi Kalitatea=</i> Bizi baldintza objektiboaren kalitatea.	<i>Bizi Kalitatea=</i> Zenbateraino dagoen norbera gogobetarik bere bizi baldintzekin.
<i>Bizi Kalitatea=</i> Bizi baldintzen kalitatea + norberaren gogobetetzea.	<i>Bizi Kalitatea=</i> Bizi baldintzen kalitatea + norberaren gogobetetzea + norberaren balioak.

Gauza bera gertatu zen ikerketa lerroekin. Hasieran ikuspegi kuantitatiboak nagusitu ziren, bizi baldintzak operatibizatu nahian, eta horretarako, adierazle mota desberdinak baliatu ziren: gizarte alorrekoak (osasun egoera, gizarte sarea, baliabide ekonomikoak, segurtasun publikoa, aisia, auzokoak, etxebizitza...), psikologikoak (bizi baldintza horien irudipena pertsonengan) eta ekologikoak (gizarteak eta gizabanakoak dauzkaten baliabideen eta kanpoko eskarien arteko oreka). Geroagoko ikuspegi kualitatiboa, ordea, ardatza gizabanakoek beren esperien-

tzien, erronken eta arazozen berri emateko era izango zen. Adierazpen horiek zerikusia dute bizitzako gogobetetze mailarekin, berau norberaren balio, asmo eta itxaropenetatik ikusita.

Baina definizioak gorabehera, argi dago toki jakin bateko giza talde baten bizi kalitatea ezagutzeko talde horren bizi baldintzak ezagutu behar direla. Bizi baldintzak ikertzea, hartara, pausu bat da bizi kalitatearen ikerketan, eta bizi kalitatearen ezagutzan sakontze hori ezinbestekoa zaigu, bizi kalitatea jasotzea gizartea hobetzeko oinarrietako bat delako gaur egun, batez ere aldaketa arin eta etengabeen eragina handiagoa den gizarteentzat.

3. Bizi baldintzak Euskal AEn: 1989-2004

Aurreko paragrafoan esan bezala, bizi baldintzen azterketa bizi kalitatea ikertzen duen ikuspegi kuantitatiboaren alderdi bat da, eta ildo horretatik, Euskal AEn biztanleen bizi baldintzek 1989-2004 bitartean izan duten bilakaeraz egiten dugun azterketa ere beste adierazle bat da Bizi Baldintzen Inkesta osatzen dutenen artean. Inkesta horren unibertsoa hiru lurraldeetako familietan bizi diren biztanleak dira, eta periodizitate bost urterik behingoa. Hamarraldi honi buruzko datu primarioak bertako lau une desberdinetan (1989, 1994, 1999 eta 2004) eta gai hauen inguruan bildu ditugu: familia harremanak, ingurumena, etxeko hornidura, inguruaren hornidura, diru baliabideak, osasun egoera, lan baldintzak, astialdia eta gizarte harremanak; lagina 5.000 familiakoa izan da, eta galdetegiak bi motatakoak, bata familiarentzako eta bestea, banakakoa, familiako kide banari egitekoa.

Bizi baldintzen azterketaren emaitzak xehe-xeheki ulertzeko, kontuan eduki behar da datuen iturria ez

dela izan errealtatearen zuzeneko behaketa, errealtate horretan parte hartzen duten pertsonen adierazpenak baizik. Bizi Baldintzen Inkesta, beraz, ez da bakarrik baldintza horien berri izateko bide bat, haren bitartez pertsona batzuek, zeinek bere jarrerak eta ezaugarriak dituzten, beren bizi baldintzez duten iritzia azaltzen baitigute. Azterketa hau, bada, bitartekari bat da errealtate kolektiboaren ezagueran.

Inkestak bizi baldintzen gainean eman dizkigun jakingarriak hiru multzo handitan bildu ditugu, aztertu ahal izateko. Batetik ditugu bizi oinarri materialak esan litezkeenak (familia etxeetako diru baliabideak eta hornidura, lan baldintzak eta osasun egoera), horiek gabe oso zaila bailitzateke gizartearen nagusitutako ereduakin bat datorren bizimodua eskuratzea. Bestetik, gizarte bizitza deitu dugun horretan jasota daude famili eta gizarte harremanak, partaidetza eta aisia eta astialdia, hau da, bestearekiko elkarreragina garatzen den gizarte gune eta sareak. Azkenik, ingurumena deitutakoak bere baitan hartzen ditu ingurune fisikoko hornidura eta zer-


bitzuak eta gizarte ingurumenaren nolakoa, hots, gizarte arazoak edo, bestela esanda, ondo-ondoko ingurunean dauden baliabideak, pizgarri edo eragozpen bat izan daitezkeelako gainontzeko bizi baldintzetatik, materialak nahiz gizarte bizitzakoak izan, atarramentua ateratzeko.

3.1. Bizi oinarri materialak

3.1.1. Familien etxeetako diru-baliabideak eta hornidura

Euskal AEn bizi diren familia gehien-gehienek lan etekinetatik ateratzen dituzte beren diru-baliabideak, eta horregatik sarrera horietan berehala igaritzen dira lan merkatuko gorabeherak, bereziki langabezi tasaren bilakaera. Aztergai dugun aldian, gorago ikusi denez, langabezi tasa eta lan aldizkatasuna azken garaietako maila handienera iritsi dira, baina era berean, aldi horretako azken bost urteetan ekonomia suspertuz joan da, poliki baina etengabe.

7. grafikoa. Langabezi tasaren bilakaera Euskal AEn (%)



Iturria: Eustat.

2. Taula. Diru askitasuna eta sarreren egonkortasuna familietan (%)

	Aski dirurik ez	Egonkorrak		Aski dirurik ez	Egonkorrak
Euskal AE			Bizkaia		
1989	48,3	79,9	1989	51,3	77,7
1994	46,4	76,6	1994	48,7	75,8
1999	32,7	88,0	1999	36,5	88,3
2004	35,5	86,2	2004	38,3	86,2
Araba			Gipuzkoa		
1989	45,0	80,4	1989	44,3	83,6
1994	41,8	74,2	1994	44,3	79,0
1999	25,0	87,5	1999	29,7	87,6
2004	27,5	88,8	2004	34,3	85,0

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

1994an langabeziaren joera aldatu zen. Urte hartan tasak goia jo arren bertan ere hasi zen ekonomiaren berpizte aldia; hortaz, muga urte bat izan zela esan daiteke, ordura arte ia familien erdiak estu ibiltzen ziren-eta hila bukatzeko, baina harrezkero horrela bizi ziren familien kopurua herenera jaitsi zen. Hala eta guztiz ere, heren horrek esan nahi du asko direla diruz larri dabiltzan biztanleak. Lurralde historikoak banan-banan hartuta, Bizkaiko familiek beste bi herrialdeetakoek baino diru sarrera murrizagoak eta kolokagokoak dauzkate.

Nola antzematen dute euskal familiek ekonomiaren aldakortasun hori? Bada, oso modu desberdinean, zeinek dauzkan baliabide ekonomikoaren arabera. Izan ere, egoera ekonomiko ona egokitu zaienek halakoxe edo are hobea ere ikusten dute, hau da, horrelakoetan bat datoz errealitatea eta irudikapen

subjektiboa. Hala ere, estuasunak bizi izan dituzten familiek famili adierazle ekonomikoek benetan dioten baino okerragoa ikusten dute beren egoera. Horren arabera, zenbat eta kaskarragoa familien egoera ekonomikoa hainbat txarragoa da egoera horretaz duten irudikapena.

Badago beste adierazle bat 1989tik 2004ra bitarteko ekonomi gorabeheraz ohartzeko: familiek beren ekonomian bizi izandako murrizketen bilakaeraz ari gara. 1989an euskal familien %36,3k beren gastuak gutxitzea erabaki zuten, eta handik bost urtera, krisialdi betean, proportzioa %47,1era igo zen. 1999an ere gastu murrizketa nahiko apaldu arren, familien herenak (%27,3) artean jarraitu zuen gastuak murgitzen. 2004an hobera egin zuen euskal familien egoera: %25ek baino gutxiagok murriztu behar izan zituzten beren gastuak.

3. taula. Egoera ekonomikoa eta haren irudikapen subjektiboa familietan (%)

	Benetako egoera				Iritzi subjektiboa			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Euskal AE								
Txarra	17,3	39,5	16,2	19,0	38,7	47,6	28,3	25,1
Normala	47,3	23,4	22,7	46,6	21,4	15,4	15,6	20,9
Ona	35,4	37,0	61,1	34,5	39,9	37,0	56,1	54,0
Araba								
Txarra	18,9	51,5	7,1	17,2	40,6	40,3	23,7	17,7
Normala	49,1	21,4	19,3	46,2	18,6	18,2	14,9	19,9
Ona	32,0	27,1	73,6	36,6	40,8	41,6	61,4	62,4
Bizkaia								
Txarra	18,7	39,5	20,8	20,2	42,2	52,3	31,8	27,0
Normala	47,0	24,9	25,8	46,9	21,0	14,0	15,3	20,7
Ona	34,3	35,6	53,4	32,9	36,7	33,6	52,9	52,3
Gipuzkoa								
Txarra	14,2	34,7	12,2	17,7	31,7	42,4	24,3	25,3
Normala	46,9	21,8	19,0	46,1	23,2	16,7	16,5	21,6
Ona	38,9	43,5	68,8	36,2	45,1	40,9	59,2	53,1

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

4. taula. Murrizketa ekonomikoak eta beste murrizketa motak familietan (%)

	Diru murrizketak			Osasun zainketetan	Etxeko horniduran	Aisian
	Jatekoan	Janzkietan	Jatekoan			
Euskal AE						
1989	36,3	26,7	76,3	17,5	73,6	59,4
1994	47,1	31,5	68,2	14,8	61,8	73,1
1999	27,3	19,8	54,8	8,1	47,4	75,2
2004	23,4	24,5	59,0	9,4	44,0	65,4
Araba						
1989	38,1	17,9	70,8	10,5	56,2	69,6
1994	33,0	28,3	87,9	14,8	71,6	73,5
1999	23,4	11,6	39,8	4,2	45,4	75,9
2004	17,1	23,7	62,1	10,3	59,5	72,3
Bizkaia						
1989	39,9	37,0	76,8	25,1	74,4	67,0
1994	52,3	37,7	69,3	19,3	57,3	75,5
1999	30,5	23,2	63,8	9,4	52,4	75,1
2004	24,4	21,0	60,1	9,0	40,8	65,0
Gipuzkoa						
1989	29,2	6,7	78,0	3,1	81,0	35,5
1994	41,5	20,1	69,1	5,1	61,1	61,1
1999	23,6	15,7	41,5	6,8	37,4	75,0
2004	24,3	30,5	56,0	9,8	44,5	64,1

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Estuasunei eusteko estrategia hauek erakusten dute familiak bizi duten egoeraren jakitun direla, beren gastuak gutxitzea erabakitzen dutenen portzentajea eta hila nekez bukatzen dutela onartzen dutenena oso antzerakoak direlako hamarraldi osoan: %36,3 eta %48,3 1989an, %47,1 eta %46,4 1994an, %27,3 eta %32,7 1999an eta %23,4 eta %35,5 2004an.

Egoera ekonomikoa benetan den moduan ez ikustekak, beraz, ez du erabakimena eragozten familiaren sarreren jaitsierari edo ezegonkortasunari aurre egin behar bazaie, eta erabaki horietatik lehenetakoak izaten da, zalantzarik gabe, familiaren gastuak gutxitzekoa. Estuasun ekonomikoak gastua murriztuz arintzea hiru lurraldeetan agertzen da, eta bakarrak aldatzen da txikiagotu beharreko gastu mota, hau da, ez da ia desberdintasunik antzematen murrizketari dagokionez, bai ordea zertan egiten duten murrizketa lurralde bakoitzeko familiak urte horietako egunerokoan. Araban eta Gipuzkoan, 1999ra arte, beti gutxitu da aurrenik janzkitarako gastua, urte horretatik aurrera aisia izango baita lehena gastuak aurreztean, Bizkaiko familiak bost urte lehenago egin zuten modu berean.

Hortaz, lehenesten diren gastuak ere ez beti berberak. Horrek iradokitzen digu zeri ematen dioten euskal familiak garrantzi gutxiago egunerokoan, edo bestela ikusita, zertan gastatzen zuten lehendik famili aurrekontuaren parte meharrena, alegia, zein gastu kentzen den errazago besteak bezain beharrezkoa ez delako. Murrizketak urtez urte eta tamainaren arabera sailkatuz gero agerian azaltzen zaigu famili aurrekontuak gutxitzen direnean haien zati txikiena aisiara eta janzkietara doala:

- 1989: etxeko hornidura, aisia, jatekoak, osasun zainketak.
- 1994: aisia, janzkiak, etxeko hornidura, jatekoak, osasun zainketak.
- 1999: aisia, janzkiak, etxeko hornidura, jatekoak, osasun zainketak.
- 2004: aisia, janzkiak, etxeko hornidura, jatekoak, osasun zainketak.

Bestalde, Euskal AEko ekonomia suspertzen den neurrian famili aurrekontuen murrizketek behera egiten dute alor guztietan 2004. urtera arte; urte horretan, famili ekonomien kaskartzeak berriro ere behartzen ditu familiak gastuak murriztera. Baina gastuak urrituta ere batzuetan familiak ez dira hilaren azkenera iristen. Nola moldatu dira euskal familiak horrelakoetan? Bada, familiaren aurrezkiez baliatuz. Lehen esan denez, bat datoz beren gastuak gutxitzea erabakitzen dutenen portzentajea eta hila nekez bukatzen dutela onartzen dutenena, eta bi portzentaje horien antzekoa da, halaber, aurrezkiak erabili zituzten familia: %44,4 eta %48,3 1989an, %42 eta %46,4 1994an eta %31 eta

%32,7 1999an. Euskal familiak gastuak txikiagotuz eta aurrezkiak joz eutsi diete hamarraldiko zailtasun ekonomikoei.

Senide edo lagunei diru laguntza eskatzen dieten familien portzentajea ez da ia aldatu, eta hortik ondorioztatzen da biztanleria tarte batek ezin diela estuasunei aurre egin, egoera ekonomikoa zein den ere. Etxeko horniduran ere behera egin dute murrizketek, eta horren erakusgarri, Euskal AEko etxeetan hornidura maila nahiko ona da, eta horretan hiru lurraldeek jo dute hobera, etengabe eta oso datu parekatuekin.

Aurrekoekin konparaturik, motordun ibilgailuena da ondoen eutsi dion familia gastua, egoera ekonomikoa gorabehera, eta oso poliki bada ere, familien ibilgailu kopuruak goranzko joera izan du, batik bat Araban eta Gipuzkoan. Autoak garrantzia galdu du bestelako motordun ibilgailuen aldean, adibidez motoaren edo furgonetaren onerako.

5. taula. Diru laguntza eskatzen edo beren aurrezkiak erabiltzen dituzten familiak (%)

	Laguntza eskatu dute	Aurrezkiak erabili dituzte
Euskal AE		
1989	13,4	44,4
1994	11,4	4,0
1999	11,0	31,0
2004	7,7	(*)
Araba		
1989	11,8	37,6
1994	5,9	22,5
1999	8,9	22,3
2004	7,4	(*)
Bizkaia		
1989	15,5	47,5
1994	10,5	46,7
1999	11,0	31,0
2004	7,6	(*)
Gipuzkoa		
1989	10,3	41,9
1994	10,5	41,7
1999	11,9	34,8
2004	8,7	(*)

(*) Ez dago 2004ko daturik.

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

6. Taula. Etxean oinarritzko hornidura eta hornigai elektronikoak dauzkaten familiak (%)

	Euskal AE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Ur beroa	98,0	99,3	99,5	99,3	96,5	99,3	99,3	99,9	98,1	99,2	99,4	99,1	98,4	99,5	99,7	99,3
Telefonia	90,0	93,6	95,4	95,1	89,7	90,7	91,7	92,4	89,8	93,8	95,4	95,6	90,4	94,3	96,9	95,4
Hozkailua-																
Izozkailua	72,9	67,3	85,0	94,0	70,5	68,4	76,0	97,6	83,3	62,1	84,9	95,1	55,7	75,9	89,0	90,5
Garbigailua	96,8	98,4	99,2	99,1	95,4	98,6	99,1	99,4	97,0	98,1	99,2	99,1	97,2	98,7	99,4	98,8
Ontzi garbigailua	14,3	18,0	25,8	38,5	14,3	16,1	26,3	39,7	15,0	17,4	23,9	38,0	13,1	20,0	28,9	38,8
Xurgagailua	63,7	72,9	80,5	87,7	51,7	64,6	75,6	83,1	67,2	75,6	81,3	90,4	62,5	70,5	81,3	85,2
Musika katea	26,1	47,9	68,2	70,6	25,2	50,0	70,4	68,9	25,9	46,7	67,9	73,0	26,7	49,2	67,7	67,2
Argazki makina	61,0	69,6	75,1	71,8	59,4	66,7	76,3	70,5	61,7	69,5	74,3	73,1	60,4	70,8	75,8	70,2
Filmatzeko tresnak	4,6	10,0	18,2	24,9	4,1	7,7	18,3	26,1	4,8	1,2	17,2	26,5	4,3	10,6	19,9	21,8
Koloretako																
telebista	91,5	98,5	99,4	99,0	95,5	98,8	99,3	99,1	91,4	98,5	99,4	99,1	91,2	98,5	99,4	98,7
Bideoa	31,9	58,6	71,9	73,8	30,4	53,7	72,3	72,3	32,5	58,8	70,5	75,8	31,4	60,1	74,2	71,3
Ordenagailu																
pertsonala	10,0	15,3	31,3	48,9	10,4	24,9	34,5	50,4	11,3	26,1	30,9	50,2	7,4	13,5	30,8	46,2

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

7. taula. Gutxienez motordun ibilgailu bat daukaten familiak (%)

Euskal AE	Motozikleta		Autoa		Furgoneta		Ibilgailurik ez		
	1989	1994	1989	1994	1989	1994	1989	1994	
1989			2,1		56,2		2,5		39,2
1994			3,0		56,4		3,9		36,7
1999			5,8		53,1		4,0		37,1
2004			2,9		68,7		4,2		-
Araba									
1989			1,9		58,6		3,2		36,3
1994			1,8		62,4		4,5		31,3
1999			6,9		59,8		4,4		28,9
2004			2,8		76,7		4,1		-
Bizkaia									
1989			1,7		56,4		1,5		40,4
1994			1,8		54,6		3,5		40,1
1999			4,1		51,5		3,7		40,9
2004			2,5		66,2		3,9		-
Gipuzkoa									
1989			2,7		54,8		4,0		38,5
1994			5,0		57,2		4,3		33,5
1999			8,3		52,9		4,4		34,4
2004			3,6		69,4		4,7		-

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

3.1.2. Lan baldintzak

Laurogeita hamarrekotan ekoizpen sistemak aldarazi zituzten prozesuek aldaketak eragin dituzte, orobat, sistema horiei lotutako biztanleria aktiboan. Enpresen doitzeta eta birmoldatze etengabeek langile plantilak ere berregokiarazi dituzte, ekonomia espekulatiboa nagusitzen zen une batean eta ekoizpen inbertsioak lanpostu gutxi eta oso kualifikatuak sortzen zituela. Orduan bezala, ekoizpen sektore batzuek beste batzuk bereganatzen dituzte, lanbideak desagertzen dira eta lan mota berriak sortzen dira. Industria ez da, argiki, lehengo sektore nagusi hura, eta hazi dira, berriz, zerbitzuak, beste sektore ekonomikoetako langile galera erakarrita. Horren erakusgarri, Euskal AEK 1989an zerbitzuetan zeukan biztanleria aktiboa (%48,6) %58,4ra hazi zen hamar urteren buruan, eta %61,5eraino 2004an.

Aldaketa horiek sendo agerrarazten duten «lanaren kultura berrian» *soldatapeko langileak*, besteren


kontura eta lanpostu egonkorrean ari zenak, ondoan izango du lan merkatuan beste langile mota bat, berau beregainagoa eta malgutasun handiagoz diharduena, bere burua etengabe prestatu eta berregokitu behar duelako, teknologiaren berrikuntzek dakartzaten aldaketa bizkor eta ugarietara moldatzeko prest. Hortxe geratzen dira, aurrera egin ezinda, langabe asko, lanaren erritmo eta eskakizun berrietara egokitu ez direnak. Ez dira bakarrik aldatu, beraz, langabeziaren ezaugarriak, baita lanarenak berarene ere, eta horrek eragina du bai biztanleria aktiboan baita kapitulu honek aztertzen dituen biztanleria landunaren lan baldintzetan. Hemen, dena den, merkatuko kontratueta jasotzen diren lan baldintzak bainoago aztergai izango dugu nolakoa den merkatu horrek ezartzen duen lan egiteko era, hots, zein diren enpleguaren ezaugarri nagusiak XX. mendearen amaieran eta, beharbada, zein izango diren XXI.ean.

Ezaugarri horietako bat izan da emakumeen parte-hartze gero eta zabalagoa, eta horrekin bat, gizonen


eta emakumeen aukera desberdintasuna lanpostua bilatzean. Euskal AEko lan merkatuan gizonak dira nagusi, baina ez bakarrik enplegu tasa hobeak dauzkatelako, baita merkatura askoz emakume gutxiago iristen direlako ere.

Genero aldagaiak, bada, neurri handiz moldatzen du enplegua, eta izan ere, merkatuak bi oztopo jartzetik emakumeei, batetik haietako gehienek jardura ekonomikoaren alderdi zehatzetan lan egiten dutelako, eta bestetik, oraindik dirauelako gizartean nolabaiteko inertiak lan banaketarako orduan, emakume asko lanetik kanpo utzita. Nolanahi ere, Euskal AEko emakumeen enplegua

eta gizonena ez dira berdinak, eta beharbada horren oinarria zerbitzuen alorrean bilatu behar da, emakume gehien hartzen dituen sektore ekonomikoan hain zuzen ere. 1989an zerbitzuek emakumezko biztanleria aktiboaren %67,8 biltzen zuten, eta gizonezkoaren %37,8; hamar urte geroago, 1999an, sektore honek emakumezko biztanleria aktiboaren %78,5 zeukan, eta gizonezkoatik %44,6 soilik. 2004an joera ez zen eten, indartu baizik, emakume aktiboaren %83k zerbitzuetan lan egiten baitzuten, eta gizonen artean %45,7k baino ez. Horiek horrela, Bizi Baldintzen Inkestaren arabera nolako ezaugarriak dauzka emakumeen enpleguak? Eta gizonenak?



Iturria: Eustat.



Iturria: Eustat.

8. Taula. Biztanleria landunaren ezaugarriak, 16 urtetik gorakoen artean eta sexuaren arabera (%).

	Euskal AE				Gizonak				Emakumeak			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Orduetgia												
Txandaka	17,0	16,8	19,0	25,0	19,8	20,4	22,6	25,0	11,0	10,7	13,2	27,0
Orduetgi finkoa	67,8	65,0	65,8	63,0	65,4	59,5	60,6	63,0	72,9	74,5	74,1	60,0
Orduetgirik ez	15,2	18,2	15,2	12,0	14,7	20,1	16,8	12,0	16,1	14,8	12,6	13,0
Lanaldia												
Jarraitua	44,5	49,8	49,8	42,0	44,9	50,2	50,0	45,0	43,7	49,0	49,6	37,0
Etena	55,5	50,2	50,2	58,0	55,1	49,8	50,0	55,0	56,3	51,0	50,4	63,0
Orduetgi kontrola												
Kontrolatua	52,2	47,9	42,7	49,0	54,3	58,2	62,9	56,0	33,7	42,4	48,9	40,0
Kontrol gabea	47,8	52,1	57,3	51,0	45,7	41,8	37,1	44,0	66,3	57,6	51,1	60,0
Asteko atsedenaldiak												
Atsedene egunik ez	1,3	1,5	1,8	2,0	1,1	1,4	1,4	2,0	1,9	1,5	2,3	2,0
Egun 1	19,5	19,1	20,4	16,0	16,2	16,0	16,2	13,0	26,8	24,2	26,7	21,0
2 egun	77,0	77,4	75,6	78,0	81,4	81,8	80,5	82,0	67,7	70,3	68,3	72,0
3 egun edo gehiago	2,2	2,0	2,2	4,0	1,3	0,8	1,9	3,0	3,6	4,0	2,7	5,0
Ingurune fisikoa												
Usain txarrak	15,7	11,6	17,4	10,0	17,6	14,1	16,9	17,5	11,9	7,2	9,3	8,0
Zarata gogaikarriak	25,8	20,4	24,3	20,3	31,7	26,3	32,3	25,9	13,1	10,1	11,7	12,9
Egurats eskasa	10,8	8,4	10,7	8,3	10,3	9,4	11,0	9,5	11,8	6,5	10,2	6,8
Argi gutxi	5,6	3,1	4,6	5,5	4,8	3,5	6,1	6,1	4,1	2,4	2,2	4,6
Hezea	7,7	7,4	8,4	6,2	8,8	9,0	10,5	8,3	5,3	4,6	4,9	3,3
Oso hotza	20,6	18,2	18,5	19,6	25,9	21,9	24,6	23,9	9,3	11,9	8,7	14,0
Oso beroa	22,9	19,4	24,0	22,3	27,7	24,1	30,7	26,9	12,7	11,2	13,5	13,6

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Lehen desberdintasuna ordutegiarena da. Gizon zein emakume gehienek lan ordutegi finkoa eduki arren, txandaka ari diren langile gehienak gizonak dira, eta datu hau ez da aldatu hamarraldi osoan. Bestalde, industriak, txandakako lan antolaera ohikoagoa den sektoreak, gizonen biztanleria aktiboaren %37,5 hartzen du, eta soilik emakumezkoaren %13. Generoen arteko beste desberdintasun nabarmen bat ordutegi kontrolean ikusten da, emakumeen kasuan lausoagoa baita, eta izan ere, desberdintasuna areagotuz joan da hamar urte hauetan, emakumeen lanaren bereizgarrietako bat izateraino, egia bada ere joera kontrolak zorroztekoa dela: 1989an emakumeen %33,7k lanean ordutegi kontrola zeukatelaren zioten, eta hamar urteren buruan %48,9k. Hirugarren desberdintasuna asteko atsedenaldietan datza, hau da, asteburu eta, batik batik, larunbatetan lan egin beharrean. Hamar urte hauetan emakumeek gizonen baino asteko atsedenaldi gutxiago izan dituzte, batez ere gizon baino emakume gehiagok lan egiten dutelako larunbatetan, eta datu hori ez da ia batere aldatu hamarraldian. Azkenik, beste desberdintasuna lantokiko ezaugarri fisikoena da, baina kasu honetan emakumeen lanpostuen aldean gizonen ezaugarri okerragoak izaten dituzte. Gizon langileen herena kexu dira, besteak beste, zarata gogaikarriengatik eta bero handiagatik, eta emakumeetan, berriz, portzentaje hori %12 ingurukoa da. Bi arazo horiek dira, bestalde, gizonen zein emakumeen beren lan baldintzez maizten aipatzen dituztenak, eta hala ere, ez dira apaldu hamarraldian, aitzitik, urte horietan gora egin du zarata gogaikarriak eta bero handiegia jasaten dituztela dioten kopuruak.

Aurrekoa ikusita, emakumeen eta gizonen ohiko lan baldintzak zehazteko moduan gaude, eta galdetzen bazaigu zein baldintzatan lan egiten duten emakumeek esan dezakegu laurogeita hamarrekotan emakumeek ordutegi finkoa dutela, lanaldi jarraitu edo etenarekin, eta ordutegi kontrolik gabe aritzeaz gain, larunbata lanegun eduki dutela, baina ingurune fisikoa, ordea, egokia izan da. Gizonei dagokierik, ordutegi finkoa dute, lanaldi jarraitu edo etenarekin, ordutegiak kontrolatuta, larunbata lanegun ez dutela eta ingurune fisiko ez egoki batean.

9. taula. Lantokira iristeko erraztasuna 16 urtetik gorako landunen kasuan (%)

	1989	1994	1999	2004
Lantokirako tartea				
Km 1 baino gutxiago	27,3	26,6	21,1	18,6
1-5 km bitartean	38,7	33,3	35,3	33,4
5-10 km bitartean	14,0	14,7	13,1	15,4
10-30 km bitartean	16,1	19,7	24,7	26,0
30 km baino gehiago	3,9	5,7	5,8	6,6
Garraibidea				
Autoa	38,4	45,5	47,2	48,9
Trena	4,3	4,9	5,9	7,2
Autobusa	13,6	10,2	10,0	10,4
Oinez	39,3	34,8	30,7	27,9
Bizikleta edo motoa	1,3	1,4	1,4	1,9
Bat baino gehiago erabiliz	1,9	1,8	1,3	2,2
Bestelakoak	1,2	1,7	3,5	1,5
Etxean bazkaldu				
Beti	72,3	69,6	66,7	70,2
Inoiz ez	27,7	30,4	33,3	29,8

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Lan baldintzen aldetik badago beste alderdi bat eragin handi samarra duena langileen ongizatean eta haien bizimodua moldatzen duena. Kokapen espazialaz ari gara, hau da, zein tokitan dauden kokaturik, geografikoki, lanpostu desberdinak eta horietan dihardutenen taldeak. Bizi Baldintzen Inkestak dioenez, 1999an ia euskal landunen %60 lanpostutik gertu bizi ziren, lantokitik 5 kilometro baino gutxiagora, hain zuzen. Datu hauek, nonbait, atzera garatzate, industri iraultzako kokapen eredura, hango garaietan industriak, hasierako garapen aldian, lehengaiak zeuden tokietatik hurbil pilatzen zirelako, hornitze-ibilbideak sortuz, eta biztanleak ere inguru berean finkatzen ziren. Biztanleria goraka hasten zenean, biztanleak espazioan banatzen ziren, hornitze-ibilbideen parean, horrela arinago joan zitezkeen-eta lanlekura.

la mende bat igarota, Euskadiko biztanleriaren zati handienak lantokiaren inguruan jarraitzen du, 10 km-ra urrunenik, landunen %6 bakarrik bizi baitira 30 km baino gehiagora, eta horregatik ia langileen %70 etxera joan daitezke bazkaltzera, eta heren bat oinez lanera. Ondorioztatzen den etxe-enpresa harremanak, hartara, postmodernitatekoa baino industria iraultzakoak dirudi, garai horretan biztanleguneak fabrika zegoen tokian eratzen zirelako, eta gaur egun ere, XX. mendearen azkenetan gauden honetan, Euskal AEko landunen erdiak baino gehiago ez dira lantokitik 5 km-ra bizi. Horrek adierazten du lanak ez duela mugikortasun espazial handirik sortzen: lana non, bertan bizi gara, hau da, lana gure gizarte lotura nagusietako bat da oraindik. Lan ingurunea eta gizarte ingurunea maila espazial berean daude.

Baliteke, ordea, oraingo garaia kontrako joeraren hasierakoa izatea. 1989an biztanle landunen %66 lantokitik 5 km baino gutxiagora bizi ziren, baina hamar urteren buruan proportzioa ia hamar puntu jaitsi zen, %56,4raino. Asko dira oraindik lanpostutik hurbil bizi diren biztanleak, baina dagoeneko multzo handi batek aldirietara alde egin du, eta hamar urte hauetan 5 km baino gutxiagorako biztanlerian izandako ehuneko galera ez da, 1999an, km 1 baino gutxiagora bizi direnen multzora joan, 10 km-

tik harago bizi direnek osatzen dutenera baizik. Esan nahi ote du horrek hasiak garelara industria gizarteetan ohikoa den etxea-enpresa bikotetik aldentzen? Beharbada, ekonomiaren bizkorraldiari esker baliabide oparagoak biltzen ditugun neurrian erakargarriagoa zaigu orain hirialdetik urrun bizitzeko dugun aukera, ingurune naturala eta gizarte estatus berri bat ekarriko dizkigulakoan.

3.1.3. Osasun egoera

Bizi baldintzen oinarrietako bat da, zer esanik ez, osasun egoera. Areago, osasunak beste bizi baldintzen bidea gidatzen du hein batez. Izan ere, osasuntsu egoteak ez ditu beste baldintza horiek hobetuko edo kaskartuko, ezta lan ordutegi ona edo diru gehiago ekarriko ere, baina sasoi onean ez bagaude ez gara beharbada lan egiteko gauza izango, edo zenbait lanpostu mota ez dira gure esku egongo, eta horrek ondorioak edukiko ditu gure irabazietan. Osasunak, beraz, bizi baldintza onen eta txarren arteko muga markatzen du, oztopatu eta are eragotzi egin dezakeelako baldintza horiek (lanekoak, ekonomikoak, harremanei eta aisia eta astialdiari dagozkionak) egoki garatzea.

Bizi Baldintzen Inkestaren arabera, hamarraldi honetan biztanleen osasuna egonkorra eta oso antzerakoa izan da hiru herrialde historikoetan. Badirudi Euskal AEko biztanleen artean ez dagoela alde eta gorabehera handirik osasunari dagokionez, eta horren erakusgarri, biztanleen laurdena inguruk osasun arazoak izan ditu, gehienetan gaitz kronikoen eragindakoak, baina gutxiago dira urritasun fisiko edo psikikoen ondoriozko arazoak jasan dituztenak.

Osasun zerbitzuen erabilerari dagokionez, orotari-ko mediku edo espezialistareneko kontsuluten proportzioa ez da aldatu hamar urteetan, eta krisi ekonomikoak ez zuen etenik eragin kontsultetan, ezta jendea medikuarenera parrastan joanarazi ere. Alde horretatik, bada, osasun egoeraren irudipena ez zen gorabehera ekonomikoekin batera bilakatu.

10 taula. Biztanleen osasun egoera orokorra, herrialdez herrialde (%)

	Urritasun fisikoa edo psikikoa				Gaixotasun kronikoa				Gaixotasunik ez			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Euskal AE	4,1	4,4	6,0	5,1	18,5	17,4	17,9	15,3	77,4	78,2	76,1	79,5
Araba	4,5	2,8	5,3	4,7	23,3	15,3	19,8	10,3	72,2	81,9	74,9	85,0
Bizkaia	4,4	4,8	6,7	5,6	19,8	18,7	16,9	17,1	75,8	76,5	76,4	77,3
Gipuzkoa	3,3	4,2	5,0	4,5	14,2	14,2	18,8	14,6	82,5	79,8	76,4	80,9

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

11 taula. Osasun zerbitzuen erabilera (%)

	1989	1994	1999	2004
Kontsulta motak				
Orotariko medikua	78,3	76,8	78,7	82,7
Mediku espezialista	46,8	54,4	53,2	57,3
Farmazialaria	6,5	3,8	7,9	3,7
Optikaria	9,1	9,6	14,6	11,7
Psikiatra	0,8	1,0	2,2	1,8
Haginarria	14,0	17,3	24,9	30,1
Osasun azterketak (*)	47,6	60,0	65,5	68,2
Ospitaleratzeak	6,4	7,9	8,2	12,0
Jarduerak etetea (*)	16,4	16,2	20,1	16,5

(*) 6 urtetik gorako biztanleak.

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Osasun zainketan aldaketak izan dira, ordea, beste zerbitzu batzuen erabilera, orain biztanleek oinarritzko osasun zainketan diharduten espezialistengana jotzen dutelako, instituzio publikoek hala bultzatuta osasunaren kulturak bere egin baitu prebentziorako ardura hori: ahoko higieña, aldizkako azterketak, ikusmena zaintzea, automedikazioa baztertea edo buru osasuna. Prebentziorako joera honen ondorioz gora egin dute, poliki baina etengabe, haginlari, optiko, farmazialari edo psikiatren kontsulta kopuruak eta aldizkako azterketenak. Horregatik, nahiz eta oro harreko osasun egoera gutxi aldatu den, Euskal AEn ospitaleratze gehiago egiten dira, eta luzatu da, halaber, biztanleek beren osasuna zaintzeko erabiltzen duten denbora. Horrek guztiak, noski, eten gehiago eragiten ditu eguneroko zereginetan.

3.2. Gizarte bizitza

3.2.1. Familia harremanak

Aspalditik aipatu izan da familiaren ahultzea, eta hortik behin eta berriz errepikatu diren esaldiak: «familia galtzen ari da berezkoa zuen izaera, kolo kan dago gure gizarte bera ere» edo «famiaren krisia gizartearen krisia da». Hala ere, familia instituzioaren aldaketak gizarte aldaketa zabalagoen isla baino ez dira.

1994an, Familiaren Nazioarteko Urtea izan zen hartan, agerikoa zen gizarte sektore batzuen kezka, mendearen amaierarekin batera familia instituzioaren gainbehera zeharrelakoan, eta hala adierazten zuten, nonbait, zenbait datuk: ezkontza eta jaiotza tasen jaitsiera, pertsona zein guraso bakarreko etxeen igoera, dibortzio tasen hazkuntza edo ezkontzan oinarrituta ez zeuden bizikidetzaren eredu agerzteza. Aurrean geneukana, ordea, ez zen familiaren azkena, ustezko eredu bakarretik aldantzen ziren familien azalera baizik.

Gizarte aldaketek, edo hobeto esanda, aldaketa horietara egokitzeak goitik behera bestelakotu dute betikoa omen zen familia hura, eta horretan funtsezkoa izan da emakumeak lan merkatura iristea eta

bilakaera ekonomikoa. 50eko hamarkadan familiaren interesak artean nagusitzen zitzaizkien familiako kideek zituztenei, baina 60ko hamarralditik aurrera lehenesten hasi ziren norbanakoen nahiak. Nahiz eta orduko familian lokarri sendoen oinarria betebehartan zetzan, garapen ekonomikoak aurrera egin ahala indarra hartuz doaz famili maitasunaren kontzeptu berriak, eta gizarte modernoan nagusitzen den individualismoak bestelako familia harremanak finkatuko ditu, norbanakoen arteko maitasuna oinarri. Orain, bada, familia nuklearraren baitako loturek lehengoak ez diren euskarriak dauzka: bikotekideen berdintasun handiagoa, seme-alaben rola aintzat hartzea eta familia izateko bere kideen nortasuna ahaldu nahi ez dituen instituzio bat. Harreman mota honek, emoziozko lokarrietan oinarrituak, bidea ireki du bestelako familia ereduarentzat: sexu bereko bikotekideak; bikoterik gabeko familia; biologikoak ez diren seme-alabak edo herrialde desberdinetan jaiotakoak... Hortaz, bada, familia nuklearra ez dago desagertzeko bidean, egitura berriak hartzen ari da.

Laurogeita hamarrekotan familiaren krisiaren inguruko eztabaida horrenbeste bizitu zen beste konpentsazio mekanismoek ezin zituztelako arindu ekoizpen sistema berriek gizartearen sortzen zituzten arazoak, hau da, familia bainoago gizarte babeserako tresnak zeuden krisian, eta familiak, horrenbestez, bere lehengo eginkizun ekonomikoak berreskuratzen zituen, berez gizartearen partaide oso bilakatu ezin ziren familia kideak mantenduz. Laguntza emozionala eskaintzeaz gain, orain familiak zeregin ekonomikoak ere baditu, lehen fabrikaren esku geratu zirenak, bere kideek sortzen dituzten baliabide ekonomikoak kudeatzen eta banatzen dituelako, premia larririk edo gizarte bazterketarik gerta ez dadin haien artean.

Baina agertzen diren egoera berrien aurrean (emakumeen laneratzea, gazteen emantzipazio berantiarra eta biztanleriaren zahartzea) familiak berregokitu egin beharko ditu bere laguntza moduak eta bere konpromezuak, famili sareak zabalduz horretarako. Hala ere, norbanakoen arteko afektibitateak eta rol berriek familian hartu duten garrantziak ez du famili elkartasunaren sentimendua indargabetuko, aitzitik sostengu lotura sendoak eratuko ditu, bai hurbileko kideen artean baita familia zabalekoengana ere. Bizi Baldintzen Inkestak adierazten duenez, elkartasun hori nabarmenagoa da, hain zuzen ere, estualdi ekonomikoetan eta erakundearen laguntzarik ezean.

Argi dirudi, hortaz, laurogeita hamarrekotan hamarraldian familia harremanak ez daudela krisian Euskal AEn. Oso bestela, familiaren barneko loturak hedatu eta ugaltu egiten dira, eta ez da ahaztu behar, gainera, horrelako harremanetan ez direla kontuan hartu eztei, bataio edo hiletak direla-eta egiten diren elkarteak. Izan ere, ia euskal familia guztiak adierazten dute harremanak dauzkatala familia hurbilarekin (etxe berean bizi ez diren gurasoak, anai-arre-

bak eta seme-alabak) eta zabalarekin (etxean bizi ez diren osaba-izekoak, lehengusulehengusinak eta beste ahaideak). Hala gertatzen da lurralde historiko guztietan.

Familia harremanak aztertzean kontuan izan behar da, bestalde, haien maiztasuna, hau da, noizik noizera gauzatzen diren, batzuetan gerta baitaiteke harreman hori aldi behingoa izatea, eta familia sare estuagatik baino unean uneko beharragatik azaleratzea. Taulako datuetan agerienez, ahaidetasun maila hurbileko harremanak familia zabalekoekin baino estuagoak izaten dira. Hori esperatzekoa bazen ere, deigarriagoa izan da, ordea, nola errotu diren horrelako harremanak aldi honetan: 1989an familien %69k lotura sendoa zuten hurbileko familiarekin, eta hamabost urte geroago portzentajea %88koa zen. Antzera gertatu zen familia zabalareki-

ko harremanen kasuan, 1989an familien %14,6k baino ez zituztelako harreman estuak beren osaba-izeko, lehengusu-lehengusina eta bestelako ahaideekin, eta 2004an, berriz, %26,6 ziren. Familia lotura beste ahaidetasun mailetan ere indartu dela argi dago familia zabalari buruzko datuetan, *harremanik ez* eta *noizbehinkako harremanak* dioten aukeren portzentajea gutxituz joan delako, eta ohikoago bihurtu, berriz, maizko harremanak eta harreman sendoak.

Hortik ondorioztatu behar da familiak eta bizikidetzak nukleoak ez dutela zertan izan baliokide, edo familia arteko loturak bakanduz doazela esatea oso azalpen murrizgarria dela, familien laguntza sareak azaltzean soilik erreparatzen zaiolako kokapen fisikoari, baina datuak bestela mintzo zaizkigu: ez gara elkarrekin bizi, baina bai elkarrekin harremanetan.

12. taula. Familia harremanak aitortzen dituztenen (%)

	Familia hurbilarekin				Beste ahaide batzuekin			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Euskal AE	95,6	97,4	96,6	95,4	82,0	82,2	87,7	85,8
Araba	97,2	98,9	97,5	96,7	83,6	91,4	88,8	91,3
Bizkaia	95,5	96,9	95,3	95,9	81,9	75,0	84,9	83,7
Gipuzkoa	95,1	97,6	98,5	94,0	81,4	90,8	91,8	86,8

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

13. taula. Familia harremanen zenbaterainokoa (%)

	Familia hurbilarekin				Beste ahaide batzuekin			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Estuak	69,0	75,0	82,1	88,0	14,6	17,3	21,8	26,6
Maizkoak	19,9	18,5	12,6	6,3	28,7	29,1	33,8	33,7
Aldian behingokoak	6,6	3,8	1,9	1,1	38,3	35,5	32,0	25,2
Ez dute	4,5	2,7	3,4	4,7	18,4	18,1	12,4	14,4

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

14. taula. Familia harreman motak (%)

	Zenbait aldiz astean				Behin edo gehiagotan hilean				Behin edo gehiagotan urtean				Inoiz ez			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Familia hurbilarekin																
Telefono deiak	59,7	64,4	75,0	86,9	24,3	26,2	18,4	9,3	10,5	7,3	4,9	2,1	5,5	2,0	1,9	1,7
Bisitak	48,6	50,9	56,7	51,6	25,7	28,9	24,5	22,0	23,7	18,4	17,4	18,1	2,0	1,8	1,3	3,2
Elkartzeak eta																
otorduak	31,3	34,3	43,2	47,7	24,5	27,2	25,6	27,8	38,9	33,5	29,2	28,7	5,3	5,6	1,9	2,8
Elkar laguntzea	35,7	42,7	47,5	57,8	23,8	23,8	24,4	21,0	31,5	28,6	23,5	19,0	8,9	4,9	4,5	2,2
Beste ahaideekin																
Telefono deiak	13,5	12,6	17,5	27,5	33,1	34,1	39,4	39,6	45,3	47,4	39,8	30,6	7,9	5,9	3,2	2,2
Bisitak	8,7	7,0	11,0	12,1	21,5	21,7	24,9	23,7	62,2	62,7	54,7	50,8	7,6	8,7	9,4	13,3
Elkartzeak eta																
otorduak	4,2	3,4	5,9	6,5	12,5	13,7	18,2	16,6	61,5	57,1	60,7	58,4	21,8	25,8	15,2	18,5
Elkar laguntzea	5,3	10,2	10,4	19,5	16,0	19,2	17,6	19,7	57,7	53,8	57,3	57,4	21,0	16,8	14,7	12,4

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Eta gero eta gehiago bizi da era horretan. Elkarrekiko jarduerak maizkoagoak dira, bai familia hurbilekoekin bai zabalekoekin ere. Familiakoen arteko komunikabide ohikoena telefonoa da: 1999an familiakoen %93,4k gutxienez hilean behin baino gehiagotan izaten dituzte telefono bidezko harremanak guraso, anai-arreba edo seme-alabekin, eta 1989an, berriz, %84k egiten; bi urte horietan %56,9k eta %46,6k, hurrenez hurren, gauza bera egiten zuten osaba-izeko, lehengusu-lehengusina eta beste ahaideekin.

Harreman pertsonalek ere pisu handia dute. Familiek sarritan elkar bisitatzen dute, baita bildu, otorduak antolatu edo elkar lagundu ere. 1999an familien %81,2k gutxienez hilean behin baino gehiagotan bisitatzen zituzten gurasoak, anai-arrebak edo seme-alabak, eta %36k osaba-izeko, lehengusu-lehengusina eta beste ahaideekin ere egiten zuten; hamar urte lehenago, %74,3k eta %30,2k egiten zuten, hurrenez hurren. Egia da harremanak ahaide-tasun mailarekin batera estutzen direla, eta hurbileko familiari zabalari baino maizago egiten zaiola bisita, baina hala ere, %9,3k soilik adierazi dute ez dituztela inoiz osaba-izekoak, lehengusu-lehengusinak edo beste ahaideak bisitatu, gehienek (%79,6) gutxienez behin baino gehiagotan egiten baitute urtean.

Familien %68,8 hilean behin baino gehiagotan bildu ziren guraso, anai-arreba edo seme-alabekin elkartze eta otorduetan, eta %24,1ek osaba-izeko, lehengusu-lehengusina eta beste ahaideekin. Maiztasun berarekin %72k laguntza eman die guraso, anai-arreba edo seme-alabei, eta %28k osaba-izeko, lehengusu-lehengusina eta beste ahaideei. Hemen ere ikusten da ahaidetasun mailan urrundu ahala apalagoak direla harremanak. Hala ere, familien %60 inguru urtean behin baino gehiagotan elkartzeko edo otorduak dauzka osaba-izeko, lehengusu-lehengusina eta beste ahaideekin, edo laguntza ematen die.

Kontuan hartzen bada egoera ekonomiko jakinetan familien %11k bakarrik eskatu zieten laguntza ekonomikoa beste ahaideei, familiari laguntza ematea ere zerbitzu-ematetzat jo daiteke, eta horren arabera, oraindik ere familiarengana jotzen da, lehen baliabide gisa, estuasunetan, zerbitzu-enpresa moduko bilakatu baita beharra dagoenean edo benetako konpentsazio baliabiderik ez badago, eta hala izan zen, batez ere, laurogeita hamarreko hamarraldian. Familia elkartasuna, beraz, egokitze estrategia eraginkorra izan da egoera ekonomiko berriaren ondorio kaltegarriak arintzeko.

3.2.2. *Gizarte harremanak eta partaidetza*

Behin batean, lagunartean zegoela, Jean Paul Sartrek «infernua besteak dira» esan zuen. Eta egia

da askotan besteekin ditugun harremanak itogarriak izan dakizkigukeela, baina egia da harreman horien gabea are lazarriagoa izan daitekeela. Gizartekoa den aldetik, gizakiak harreman sare bat bilbatzen du berezkoak zaizkion inguruneetan, eta ehundura hori funtsezko bihurtzen zaio, duen atxikimendu eta afektu beharra asetzeaz gain nortasun eta kidekotatasun sentimenduen iturri direlako, tresna bat unean unekoa ebaluatu eta kontrolatzeko. Sare horretan eskuratzen duen informazioari esker gizabanakoak berarekin arduratzen diren ustea hartzen du, maita, estimatua, baloratua ikusten du bere burua, elkarrekiko komunikazio eta betebeharren sare baten partaide.

Bere bizitzan pertsona bat nekez geratuko da gizarte harremanen ondorioetatik kanpo, kide gaituen bizikidetzaren eremuetako interakzioak betegarriak bazaizkigu hobeto sentitzen garelako, eta eraginkorragoak gara gure eginbeharretan; haatik, besteekiko harremanek gogobetetzen ez bagaituzte hori porrota izan daiteke guretzat. Gure jardute eremuetan (afektiboa, lana, aisia...) gauzatzen ditugun gizarte harremanak gidatzen gaituzte, beharrezkoak dira gure gizarteratze prozesuan. Harremanen alderdi hori egoki betezea edo ez erabakigarria izango da guretzat, ongizate edo gatazkaren iturria izango baita gure eraketan pertsonalean eta gizartearekin moldatzen garen eran.

Gure gizarte sarearen baliabideek, beraz, laguntza ematen digute afektibitate zein gauzazko beharrak betetzen, hala egunerokoan nola ataka larrian. Gizarte laguntza horrek sorburua dute besteekin eratzen ditugun gizarte harremanen hiru mailetan, eta horietan ezaugarri eta eragin desberdineko loturak garatzen dira.

Lehen mailako harremanek, komunitatearekikoek, erakusten dute zenbateraino egiten dugun bat eta zein neurritan parte hartzen dugun zabalagoa den gizarte egitura batean. Bigarren mailan kokatzen diren harremanek, zehatzagoek, lotura sentimenduez hornitzen gaituzte, eta azkenik, hirugarren mailan harreman minenak, konfiantzakoak, eratzen ditugu; hirugarren mailako horietan mamitzen dira konpromezu sentimenduak eta bestearen ongizatea xede duten elkartrukeak. Bizi Baldintzen Inkestan lehen mailak auzoko harremanak eta talde eta elkarreetako partaidetza biltzen ditu; bigarren mailari lagun eta senideekiko harremanak dagozkio, eta hirugarrenari familiar hurbilenekikoak. Atal honek gizarte laguntza sortzen duten aurreneko bi iturriak aztertzen ditu, senideei dagokiena izan ezik, hori eta familia hurbilarekiko harremanak aurreko atalean ukitu baitira.

Familia harremanekin egin bezala, gizarte laguntza kasuan ere gizarteratzearen alderdia hartuko dugu oinarri. Azterbide honek ikergai du nolakoak diren egiturazko ezaugarriak Euskal AEko familiek

osatzen duten gizarte sarean, harremanen maiztasunari, mailari eta motari erreparaturik. Lagun eta auzokideekiko harremanetan abiatuta, agerian geratzen zaigu ez daudela gainbeheran, aitzitik, eutsi edo are zabaldu ere egin dira hamabost urte hauetan, eta halaxe da hiru lurraldeetan.

la familia guztiek harremanak dituzte lagun edo auzokoekin. Harreman mota horiek, ordea, aldatu egin dira, maiztasun handiagokoak baitira auzokideekikoak lagunekikoak baino. Hori ez da harritzekoa, hurbiltasun fisikoak eta bizikidetzaren eremu fisikoak horretara laguntzen baitute.

Ikusten denez, gizarte harremanek oso tarte handia betetzen dute Euskal Aeko familien eguneroko bizitzan. Besteekiko harremanek gure jarduera guztiak ukitzen dituzte, eta haiekin osatzen dugun sare ikusezinak osagai dauzka hartu-eman informal ugariak, gizartearen egingo dugun bidea errazten edo oztapatzen dutenak. Hala frogatzen da, inoiz baino argiago, nahigabearen, ezagunengana edo fidagarri zaizki-

gunengana jotzen dugunean, haien sostengua lagungarri edo behintzat aringarri bat izango zaigulakoan estualdi horietan. Gizarte bera denean une zaila bizi duena, bestearen bilatze hori orokorragoa da, eta aurkitzen diren laguntza sareak sendoagoturik geratzen dira besteen partez laguntza jasotzen badugu. Horixe diosku, hain zuzen ere, Bizi Baldintzen Inkestak azken urte hauetak.

Familiek lagunekin eta auzokideekin dituzten harremanak maizkoago eta mamitsuago bilakatu dira. 1999an familiek 1989an eta 1994an baino sarriago dei edo bisita egiten zieten laguneari, baita lehen baino gehiagotan haiekin bildu, otorduak egin edo laguntza eman ere, eta familia barneko harremanetan bezala, telefonoa izan da horretarako komunikabide nagusia, eta bisitak zuzeneko interakzio bide ohikoena.

Maiztasuna eta edukia aztertzen baditugu ikusitako harreman guztietan (familia hurbilekikoak eta beste ahaide, lagun edo auzokideekikoak) ikusiko dugu lau-

15. taula. Gizarte harremanak lurraldez lurralde (%)

	Lagunekin				Auzokideekin			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Euskal AE	89,9	89,4	96,7	90,0	87,6	90,0	93,9	91,5
Araba	87,2	94,7	97,9	91,6	82,1	87,2	89,6	87,7
Bizkaia	91,1	86,0	95,8	87,7	87,4	86,9	93,9	90,8
Gipuzkoa	88,7	93,2	97,8	93,1	90,3	96,5	95,5	94,3

Iturria: Eustat.

16. taula. Gizarte harremanen maiztasuna (%)

	Lagunekin				Auzokideekin			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Estuak	51,4	51,7	68,5	64,1	80,7	84,9	85,6	85,0
Maizkoak	26,8	25,3	21,0	18,9	4,9	4,3	6,6	5,1
Aldian behingoak	10,5	12,0	7,1	6,7	1,7	8,5	1,5	1,1
Ez	11,2	11,0	3,4	10,3	12,6	10,0	6,2	8,8

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

17. taula. Lagun eta auzokideekiko harreman motak (%)

	Zenbait aldiz astean				Behin edo gehiagotan hilean				Behin edo gehiagotan urtean				Inoiz ez			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Lagunekin																
Telefono deiak	46,4	49,7	60,6	67,5	28,2	29,4	25,9	22,1	15,6	14,7	9,5	8,0	9,8	6,2	3,9	2,5
Bisitak	25,5	24,1	34,5	20,0	30,1	29,5	31,4	22,8	32,3	30,6	25,3	27,9	12,1	15,8	8,7	29,3
Elkartzeak eta otorduak																
otorduak	18,1	13,9	29,3	14,9	27,5	26,8	31,5	31,6	37,7	38,9	28,6	36,4	16,7	20,3	10,5	17,1
Elkar laguntzea	15,6	25,2	27,4	20,6	29,7	26,3	29,8	26,9	37,4	37,8	32,7	44,4	17,2	10,7	10,1	8,1
Auzokideekin																
Eskaileran																
berriketan egin	91,7	94,1	91,0	92,5	5,6	4,5	7,0	5,5	1,8	0,8	1,6	1,0	0,9	0,6	0,3	1,0
Bisitak	13,6	8,3	10,1	7,4	11,8	7,7	7,3	6,4	16,9	15,4	12,0	10,6	57,6	68,6	70,6	75,7
Elkartzeak eta otorduak																
otorduak	2,1	1,7	2,7	1,7	2,4	2,3	2,1	2,1	8,2	8,2	8,1	5,6	87,2	87,8	87,1	90,6
Elkar laguntzea	20,1	24,2	14,4	15,5	26,7	17,7	13,6	11,6	31,6	37,5	45,0	4,0	21,6	20,7	27,0	28,9

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

rogeita hamarreko hamarkadaren amaieran laguntza harremanei bigarren tokia dagokiela Euskal AEko familien laguntza sarean, osaba-izeko, lehen-gusu-lehengusina edo beste ahaideekiko harremanen gainetik. Izan ere, familien %36k behin baino gehiagotan egiten diete bisita, hilean, azken horiei, baina %65,9k maiztasun berarekin bisitatzen dituzte beren lagunak, eta beste horrenbeste esan daiteke elkartzeko eta otorduez, familien %24,1ek horrelakoak egiten baitituzte hilean behin baino gehiagotan beren osaba-izeko, lehen-gusu-lehengusina eta beste ahaideekin, baina proportzio hori %60,8ra iristen da lagunekin egiten denean. Laguntza ematea ere adierazle ikaragarri esanguratsua da adiskidetasun harremanetan, eta familia hurbilarekin (gurasoak, anai-arrebak, seme-alabak) baino garrantzi gutxiago badu ere, atzean uzten du familia zabalarekikoa (osaba-izekoak, lehen-gusu-lehengusinak eta beste ahaideak). Familien %57,2k laguntza ematen diete lagunei behin baino gehiagotan hilean, eta familia hurbilari ematen diotenak askoz gehiago badira ere (%72), familia zabalagoarekin egiten dutenak familien erdiak dira bakarrik (%28).

Adiskidetasun harremanen sendotze horrek egiazta egiten du gizarte ziurgabetasun egoera luze eta estresagarrietan (langabezia, kolokako eta egonkortasun gabeko lana, estualdi ekonomikoa, instituzio laguntzarik eza, gobernuen sinesgarritasun falta, gobernu aldaketak...) pertsonen laguntza sare eraginkorragoak osatzen dituztela, nahiz eta egoerak zuzenean haiek ez ukitu; izan ere, sare horiek ulergarriak eta fidagarriak zaizkie, eta ez diete estigma latzik sortzen. Zalantzarik gabe, elementu horiek familia hurbila eta lagunak dira, eta gorago esan den bezala, gizarteak, laguntza sarean garrantziaz berriz oharturik, haietan inbertitzen du.

Gainera, krisialdian edo krisiaren larriuneetan (1994an adibidez) eskurago dauzkagun laguntza sareak indartzen ditugu, zenbait kasutan haietan arin bila daitekeelako sostengua, ordainean konpromezu luzerik eratu gabe, eta halakoak dira, hain zuzen ere, auzokoekiko harremanak. Harreman mota hau, ez hain afektiboa, lagungarria da ordea, eta batez ere

laguntza eta hitz egiteko aukera eskaintzen ditu. Horregatik esaten zaie «laguntza sare naturalak», krisiaren udaberrian loratu eta oparotasunaren neguan ihartzen direlako, eta laguntza bide nagusietako bat izan dira diru baliabide eskaseko pertsonentzat. Horren adibide, 1994an, krisi betean eta hamarraldiko langabezi tasak goia jotzen zuela, familien

%42k hilean behin baino gehiagotan eman zieten laguntza auzokideei, ia urte berean lagunekin egiten zutenen proportziara (%51,5) iritsita eta sobera gaindituta osaba-izeko, lehen-gusu-lehengusina edo beste ahaideekin egiten zuten familiara (%29,4). 1999rako, berriz, portzentajea ikusgarri murriztu zen, %28ra jaitsita.

Bai sendotuta geratzen diren sareek baita gorabehera sozioekonomikoekin batera aldatzen direnek ere agerian jartzen dute gizarte sostenguaren haritik «laguntza antzema» delakoa, hau da, egoera estu eta segurtasun gabeetan konfiantza eta laguntza nork emango badaukagulako irudipena. Nork lagunduko edukitzearen irudipen hori nahikoa da egoera horietako hersturak eragiten digun ezinegona arindu dadin, eta lagungarria zaigu egokitze estrategia onek bilatzeko orduan; estrategia horietako batek ez du zertan izan laguntza eskatzea, baina eskatuz gero emango diguten ziur egiten dugu.

Argi-ilunen hamarraldi honetan ehundu den sare ikusezinen barruan ezin konta ahalako laguntza hartu-eman informalak sortu dira, harremanak finkatu dira eta beste harreman berri batzuk agertu. Sarea bilbatu duten familiarrek, lagunak eta auzokideek behar ziren baliabideak eman dituzte unean unekoari aurre egiteko. Hala ere, sare honetako gizarte laguntzaren harien artean ez da ageri elkarte edo erakundeetako kidetza. Gizabanakoen arteko harreman gehienak indartu diren arren, gizarte harreman zabalagoak, bizi garen komunitatearekin era zuzenean lotzen gaituzten horiek, ahulduz joan dira hamarraldi honetan. Aurrekoaren salbuespena Araba da, han gora egin baitu hamar urte hauetan kiroleko eta beste arlo batzuetako elkarteetako partaidetzak.

18. taula. Elkarte eta erakundeetako kidetza lurralde historikoetan (%)

	Euskal AE			Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	1989	1994	1999	1989	1994	1999	1989	1994	1999	1989	1994	1999
Kirol elkarteak	19,9	16,0	15,2	31,4	19,5	23,7	20,5	14,9	13,7	14,2	16,6	14,2
Kultur elkarteak	10,2	10,6	9,2	12,2	7,1	7,7	8,2	6,9	6,6	13,1	18,5	14,5
Langabide elkarteak	2,8	3,2	3,4	3,4	1,9	2,6	3,2	3,0	3,2	1,9	4,1	4,2
Alderdi politikoak edota sindikatuak	4,6	6,3	6,8	3,9	3,4	5,9	5,7	7,1	8,2	2,8	6,3	4,9
Bestelako elkarteak/erakundeak	6,9	9,9	8,8	12,0	8,6	13,7	5,8	11,8	9,0	6,7	7,3	6,4

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

3.2.3. Aisia eta astialdia

Gizarte harremanekin eta lanarekin batera, aisiak gure denboraren tarte zabal bat hartzen du. Aldi horietan ohikoak ez diren zereginetan jarduten dugu, haiekin gure gizarte antolamendu konplexuak sortzen dizkigun bestelako beharrak betetzeko, adibidez egunerokotik ihes egiteko eta denbora libreaz gozatzeko. Giza garapenerako beste eremu bat den aisiak bost alderdi ditu: ludikoa, ekologikoa, sormenarena, jaiarena eta elkartasunarena. Bizi Baldintzen Inkestak lehenengo lauri erreparatu die.

Alderdi ludikoa bi helburu ditu: atsedena eta dibertsioa. Atsedena lanaren eta eguneroko zereginen arteko etena da, eta dibertsioa, bere aldetik, ez da bakarrik jostaketa, baita desberdinaren eta esperientzia berrien bila aritzea. Alde ekologikotzat jotzen da ingurune naturalarekiko kontaktuak berez dakarren gogobetetzea, baita kontaktuaren arrazoiak den jardueraren alde batera utzita ere. Sormenaren alderdiaren eragilea hezkuntza, hausnarketa, kultura eta hazkuntza pertsonala errazten dituen aisia da. Azkenik, jaiaren alderdia jendartekoa da, bakarrik duelako zentzua besteekin batera ari garela; egoera atsegingarri bat da, ospakizunaren jarduerak piztua.

Euskal AEko 6 urte edo gehiagoko biztanleek dituzten aisia jarduerari dagokienez, Bizi Baldintzen Inkestaren datuak oso antzekoak dira. Badira hiru jardueraren beste guztiei gailentzen zaizkienak, biztanle gehienek egiten dituzte eta: zinea edo telebista ikustea (%82,4), etxean musika entzutea (%73,7) eta

informazio orokorreko egunkariak irakurtzea (%73,7). Jarduera horiek nagusi izan dira hamarraldi osoan, eta horrek adierazten du zergatik egin diren murrizketa ekonomiko handienak aisiaren alorrean, baita egoera ekonomiko orokorrak hobera egin duenean ere. Izan ere, 2004an familien %65,4k artean gutxitzen zuten aisiarako gastua, eta hortik, hain zuzen ere, aisia jardueraren hedatuenak gastu txikiena dakarten berak izatea.

Gainontzeko jardueretatik aipatzekoak dira, nonbait, mendirako ateraldiak, laugarren jardueraren delako eta hamarraldian biztanleen herenak bakarrik ohikoa zuten arren soilik beste heren batek ez duelako behin ere horrelakorik egin. Jarduera honetan nabaria da tradizioaren zantzua, batik bat multzo berekotasun har litekeen beste jardueraren aldean (kirola egitea), azken hau ere 6 urtetik gorako biztanleen herenak egiten duelako, baina egia da, halaber, erdiek diotela ez dutela inoiz ere kirol egiten. Zerrenda luze horretan behera egin ahala gero eta jende gutxiago egiten ditu bertako jarduerak, eta sailkapenean duten tokia zenbat eta goragokoa hainbat garestiagoa da delako jardueraren horietan aritzea. Beharbada kezagarriena ez da jardueraren batzuk gutxitzen egitea, baizik eta beste batzuk inoiz egiten ez diren artean ageri direla. Irudi hau, zalantzarik gabe, egoera ekonomiko zaila bizi duen gizarte batena da.

Aipatzeko modukoa da oporretarako denbora, familietan gastu potolo samarra sortzen baitu, eta ekonomia egoera kaskarrak ondorioak izan ditu

19. taula. Euskadiko 6 urte edo gehiagoko biztanleen aisia jarduerak eta horien maiztasuna (%)

	Maiz				Noizean behin				Inoiz ez			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Zinea telebistan ikustea	89,2	87,0	85,7	82,4	7,4	8,5	10,3	11,9	3,4	4,5	4,0	5,6
Musika entzutea etxean	68,5	70,4	73,6	73,7	14,0	12,0	11,1	11,8	17,5	17,6	15,3	14,4
Informazio orokorreko egunkariak irakurtzea	66,4	72,3	72,6	73,7	10,9	9,2	10,1	11,8	22,7	18,5	17,3	14,4
Mendira joatea	33,0	30,5	28,3	27,3	33,2	34,8	35,3	31,9	33,8	34,7	36,4	40,9
Kirola egitea	32,5	33,7	35,9	39,3	13,2	13,5	14,3	11,2	54,3	52,8	49,8	49,5
Nobelak, antzerkia, poesia irakurtzea	27,9	33,6	33,1	39,0	19,7	22,6	22,1	22,2	52,4	43,8	44,8	38,7
Bideoko zinea ikustea	28,3	31,8	37,4	57,9	7,3	17,1	20,7	14,3	64,4	51,1	41,9	27,7
Kinieletan, loterian etab. jokatzeari	30,4	28,1	29,0	27,8	24,7	26,0	21,3	34,2	44,9	45,9	49,7	37,9
Kirol egunkariak, aldizkariak irakurtzea	23,9	20,9	25,9	25,5	15,7	18,0	17,0	18,1	60,4	61,1	57,1	56,4
Zinemara joatea	15,6	31,9	23,6	26,3	34,2	22,4	33,8	37,2	50,2	45,7	42,6	36,5
Kirol ikuskizunak	19,3	17,9	17,1	17,3	24,1	23,5	24,8	23,3	56,6	58,6	58,1	59,4
Asteburuko bidaiak egitea	7,2	6,8	15,4	-	36,3	37,8	44,0	-	56,5	55,4	40,6	-
Asteburuetan bazkaldu/afaltzera joatea	4,1	4,2	7,5	8,9	32,6	39,4	49,6	61,8	63,3	56,4	42,9	29,3
Antzokira, kontzertuetara joatea	3,7	3,2	5,6	5,7	26,4	34,8	36,3	41,4	69,9	62,0	58,1	52,9
Tebeoak, komikiak irakurtzea (*)	17,7	8,8	3,9	,	12,6	11,7	2,0	-	69,7	79,5	94,1	-
Bingoan jokatzeari, kasinora joatea	0,8	0,2	0,3	0,2	3,4	2,1	1,3	1,7	95,8	97,7	98,4	98,1

(*) 2004an kenduta.

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

20. taula. Oporretarako tokia eta egoitza mota Euskadiko 6 urte edo gehiagoko biztanleen artean (%)

	Euskal AE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Oporretarako tokia																
Euskal AE	24,6	17,4	19,7	14,3	20,0	19,9	20,3	12,0	22,0	14,6	16,6	14,3	30,2	21,0	24,5	14,0
Beste probintzia batzuk	68,2	71,6	68,6	72,6	71,0	64,2	67,2	77,5	70,5	76,2	73,5	74,1	62,8	67,2	62,1	73,9
Europako herrialdeak	6,5	8,7	8,4	9,1	7,5	13,3	9,6	6,8	6,7	7,4	7,4	8,3	5,6	9,0	9,5	8,4
Beste kontinenteak	0,7	2,3	3,3	4,0	1,5	2,6	2,9	3,7	0,8	1,8	2,5	3,4	1,4	2,8	3,9	3,7
Oporretako egoitza																
Senideen etxea	39,9	36,8	34,3	27,5	36,3	36,2	32,3	26,2	42,1	39,2	38,2	27,6	37,4	33,1	28,9	27,4
Hotela edo ostalua	10,0	17,0	22,4	29,2	15,6	20,2	22,8	30,1	8,4	14,0	21,8	26,1	10,8	20,5	23,3	27,9
Bigarren etxebizitza	8,8	13,3	12,2	14,4	11,8	7,5	8,0	13,5	12,9	17,4	14,7	18,1	8,1	9,2	10,1	16,0
Ohiko etxebizitza	16,8	10,8	13,0	11,3	6,1	10,4	14,6	7,6	14,8	7,7	9,9	11,4	24,5	16,1	17,1	10,9
Alogereko apartamentua	11,5	12,6	10,8	11,0	16,3	13,9	15,5	16,3	11,0	12,7	9,3	10,9	10,6	12,0	11,2	11,5
Kanpina	8,6	7,4	6,3	5,8	12,1	9,2	5,4	5,5	8,6	6,9	5,2	5,1	7,1	7,2	8,3	5,4
Diruz lagundutako egoitza	1,9	2,1	1,0	0,8	1,8	2,5	1,3	0,9	2,1	2,1	0,9	0,7	1,6	1,8	1,1	0,8

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

honetan ere: 1989an 6 urtetik gorakoek %72,4 oporrak izan zituzten, baina handik bost urtera, 1994an, portzentajea %65,1era jaitsi zen, eta 1999an berriz egin zuen gora, urte hartan %73,3k oporrak izan zituztelako. Horren arabera, biztanleen %30 baino gehiagok ez dute oporrik eduki hamarraldi osoan edo bertako urteren batean. Baina, oporrak edukitzea eta oporretan joatea gauza bera dira? Bada, Euskal AEn hala da. Oporrak izan dituztenetatik portzentaje txiki batek bakarrik eman ditu ohiko etxean, gainontzekoek beste toki batean igaro baitituzte, eta oporrak senideen etxean ematen dituztenak gehienago izan arren, urte hauetan gora egin du hoteletan egonaldiak egiten dituztenen kopuruak. Edonola ere, etxetik ateratze hutsa gastu bat da, biztanle askok utzi behar izan dutena, dela oporrik eduki ez dutelako dela horretarako dirurik ez zutelako. Bestalde, oporretan joatea eta bidaiari egitea ez dira baliokide ageri, hotelek, alogereko apartamentuek eta kanpinek mugikortasun handiagoa ematen duten arren biztanleen %70 inguruk ez dute-eta alde egiten oporretarako aukeratutako tokitik.

Badago aipatzeko alderik herrialde batetik bestera. Bizkaia, adibidez, barne etorkin gehien hartu dituen herrialdea da, eta horregatik bertakoa da oporrak senideen etxean edo «bigarren etxebizitzan» igarotzen dituztenen portzentaje handiena; «bigarren etxebizitzan» fenomenoak goraldia izan zuen 70eko erdialdean, eraikuntzaren boomen garaian, alboko probintzia batzuek (Kantabriak batez ere) eraikitze zoruak zeuzkalako itsasaldea. Gipuzkoan, berriz, oporrak etxean ematea zerrendako bigarren aukera izan ohi da, baina 1999rako hotelek kendua zioten tokia; hala eta guztiz ere, gipuzkoarrak oraindik dira Euskal AE gehien aukeratzeko dutenak udarako. Araban sailkapeneko bigarren aukera oporrak hoteletan edo alogereko apartamentuetan igarotzea da; beraz, arabarrak dira oporretan gehien mugitzen direnak.

3.3. Ingurumena

3.3.1. Ingurune fisikoko hornidura eta zerbitzuak

Zalantzarik gabe, gizakiek askoz ongizate maila handiagoa eta bizi kalitate hobea dituzte bizi diren ingurua zerbitzuz jantzita eta egoki hornituta edukiz gero. Beren ezaugarriengatik eta kopuru eta eskuragarritasunagatik ekipamenduek eratzen duten ingurunea eragozpen edo pizgarri bat izango da komunitatearen bizitzarako, ingurune horrek moldatzen duen «gizarte inguruneak» eragina baitu bizimodu desberdinetan. Inguruko zerbitzuak eta hornidurak zertzen duten egitura fisikoa giza-kientzako euskarria da; espazioa eta gizarte elementuak uztartzen diren gune hori ingurune publiko bilakatzen da, denentzat eskuragarria eta baliagarria. Merkataritza sare hurbilak eta topaleku komunak dauzkan komunitatean gizarte harremanak errazago garatzen eta hedatzen dira. Argi dago herriek eta hiriek beren egiturari ondo txertatutako saltoki txikiak edukitzea balio erantsi bat dela, biztanleguneari bizia emateaz gain horrek gizarte ehundura sendoago bat eta gune publiko segurua go bat sortzen dituelako, gizarte ingurunea suzta-tuz. Era berean, ekipamendu eta zerbitzuez egoki hornituta dagoen inguruneak gune erkideak errazten dituela gune pribatuen aldean, bizimodu zibila etxeko bizimodua bainoago; toki aproposa da, beraz, kalera ateratzeko eta besteekin egoteko, pertsonen eta ohituren bilgune.

Gai honetaz Bizi Baldintzen Inkestak diosku Euskal AEko familia gehienek saltoki eta gizarte hornigai ugari dauzkatala etxetik, hurbil, gehienez hoge minutura oinez. Komunitate bizitza asko erraztu dezaketen ekipamenduak dira, haietan bat egiten dutelako era guztietako euskarri fisikoek, erabilerekin eta pertsonen.

21. taula. Zerbitzuak eta hornidura Euskal AEko familien ingurune fisikoan (%).

	Euskal AE			
	1989	1994	1999	2004
Saltokiak				
Taberna	96,3	96,5	96,4	88,6
Prentsa saltokia	93,3	93,5	95,6	62,0
Jatetxea	92,9	96,1	95,3	93,9
Bankua/Aurrezki Kutxa	93,9	94,6	93,7	94,1
Okindegia	93,2	94,1	93,2	93,1
Janari denda	93,6	93,5	92,9	89,7
Kafetegia	91,3	92,0	92,7	94,1
Harategia	93,6	94,4	92,3	93,9
Fruta-denda	93,6	93,4	92,2	89,3
Liburu-denda	91,2	92,6	91,8	89,3
Arrandegia	81,9	92,7	90,7	92,8
Supermerkatua	91,2	92,2	90,4	76,6
Drogeria	90,7	89,4	88,0	96,2
Gizarte ekipamenduak				
Eliza	97,3	97,3	97,2	96,2
Parkea	86,1	94,8	94,7	94,7
Lorategia/plaza	91,0	93,9	94,2	83,4
Lehen hezkuntzako				
ikastetxea	94,9	95,3	93,7	93,1
Telefono publikoa	94,1	94,5	93,6	88,4
Autobus geltokia	89,3	92,2	93,0	80,8
Farmazia	91,2	92,4	91,8	94,7
Erretiratuen etxea	88,3	95,5	91,6	91,3
Osasun zentroa	90,7	92,5	91,5	92,8
Pilotalekua	82,9	88,5	89,0	83,4
Liburutegia	80,8	88,6	88,9	89,7
Postetxea	82,1	87,1	87,5	88,6
Taxi geltokia	88,6	91,0	88,6	88,4
Kiroldegia	65,1	72,3	76,6	80,8
Udal merkatua	71,7	77,3	76,3	76,6
Hautzaindegia	71,0	78,1	74,0	91,3
Zinema/antzokia	58,1	64,6	66,0	62,0

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

3.3.2. *Gizarte ingurunearen ezaugarriak*

Esan liteke gizarte inguruneak ingurune fisikoak baino neurri handiagoan baldintzatu dezakeela bizi kalitatea, bere egoera eskasak (objetiboki hala dago eta komunitateko kideek halakotzat jotzen dute) bizimoduak moldatzen dituelako. Pertsonak, noski, beren esperientziaren edo albokoaren bidez erakitzen dute gizarte inguruneaz duten irudia, baina horretan zerikusia dute, halaber, gizarte eragile desberdinek ingurune horretako arazoak tratatzen dituzten erak, arazo horiek zuzentzeko egiten diren ahalginek zein horretarako ardura faltak eta konponbidea dagoela sinesteak edo ez. Gure herri eta hirietako kaleetan delinkuentzia, droga, eskaletasuna, prostituzioa eta indarkeria egotea gizartearen kezka nagusietako bat da, baina ondorio bera eragiten du beldurrak, hau da, geu ere inoiz gaitz horien biktima gaitzkeen irudipena. Horrek sortzen duen atsekabea handi samarra da, datu objektiboak gailentzeko adinakoa, eta izan ere, maiz horrelako egoeren beldurra benetan biktima izateko arriskua baino handiagoa da. Hala ere, errealitatearekin bat ez etorri arren irudipen horiek eragozpen bat dira gizarte bizitzarako, hain ondorioz ager daitekeen itzurtze joerak eragin zuzena lukeelako komunitatearen bizi kalitatean, era horretako jokabideek gizarte elkarre-ragina murrizten dutelako, gune publikoak hustu eta gizarte kontrol informala desagerrarazi.

22. taula. Gizarte inguruneko arazoak Euskal AEko familientzat (%)

	Euskal AE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Haien auzoan/inguruan arazo hau dago																
Delinkuentzia	40,5	27,8	19,4	14,8	24,5	10,9	12,7	13,8	37,3	36,1	26,2	17,3	34,5	18,4	10,7	11,2
Droga	47,3	38,2	28,4	20,3	25,7	19,0	14,5	16,1	42,6	44,0	35,0	23,9	43,9	31,5	22,9	15,9
Eskaletasuna	23,4	17,4	17,5	14,0	19,1	9,0	8,7	8,9	18,5	10,4	19,4	14,9	24,8	14,9	17,9	14,8
Prostituzioa	7,7	6,1	5,1	3,8	7,0	2,9	1,4	5,7	6,5	4,2	6,6	4,5	6,9	3,4	4,0	2,0
Indarkeria	9,2	8,7	8,6	7,2	8,2	6,3	5,7	7,2	8,9	6,2	10,3	8,9	5,6	3,3	6,9	4,4
Arazo etnikoak	5,4	6,2	5,6	6,3	6,7	3,3	2,7	7,2	4,7	4,5	6,6	7,5	3,9	2,5	5,1	3,9
Hauen biktima zuzena izan dira																
Lapurreta etxean	6,3	5,0	3,1	3,3	4,5	2,4	1,3	3,0	4,7	2,5	3,0	3,5	7,7	5,8	4,0	3,0
Lapurreta autoan	22,9	15,2	11,3	7,7	16,4	14,2	6,3	8,4	20,9	9,0	13,4	8,6	18,7	10,6	9,9	6,0
Lapurreta beste ondasun batean	8,0	6,9	5,3	6,1	7,8	5,5	4,6	6,7	7,0	3,9	5,7	6,5	6,5	5,7	4,9	5,1
Eraso fisikoak	2,8	3,1	1,5	1,6	3,3	2,4	1,8	2,3	2,5	1,8	1,6	2,0	2,0	2,6	1,3	0,8

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

24. taula. Euskal AEko familien irudipena gizarte inguruneaz, lurraldez lurralde (%)

	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004	1989	1994	1999	2004
Oso ona	53,8	61,2	71,3	72,1	33,1	46,8	47,9	61,5	45,7	55,3	59,3	70,4
Nahiko ona	19,4	16,8	14,0	11,9	12,9	11,2	17,9	14,7	12,3	20,5	17,3	14,1
Nahiko kaskartua	25,5	20,9	14,6	14,0	52,8	38,3	31,8	21,8	41,4	24,0	23,0	14,9
Oso kaskartua	1,4	1,1	0,1	2,0	1,2	3,7	2,3	2,0	0,7	0,1	0,5	0,7

Iturria: Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Euskal AEko familien gizarte inguruneaz ditugun datu objektiboetara jota, Bizi Baldintzen Inkestaren arabera tarte honetan egoerak hobera egin du, bai auzo eta inguruetako gizarte arazo batzuei dagokienez baita biktimizei ari bagara ere. Familiek antzematen dutenez, delinkuentzia hogeita bost puntu jaitsi da hamabost urte hauetan, 1989ko %40,5etik 2004ko %14,8raino; drogak ia 10 puntu behera egin du, 1989ko %47,3tik 2004ko %20,3ra, eta neurri txikiagoan bada ere, gainontzeko arazoak ere apaldu egin dira. Bestalde, lapurreta baten edo indarkeria fisikoaren biktima izateko arriskua murriztu da 1989tik 2004ra bitartean.

Lurraldeka aztertuta, ordea, bilakaera ez da berdina izan. Bestalde, Bizkaian lapurreta edo eraso fisiko bat jasateko arriskua areagotu egin da 1999tik 2004ra, baina ez da 1989an bezain handia, eta beste herrialdeei dagokienez, arazoak behera egiten du etengabe. Egoerari lurraldez lurralde erreparaturaz, esan daiteke Bizkaia dituela datu txarrenak gizarte ingurunearen aldetik, eta Arabak, berriz, onenak. Datuak datu, nola ikusten dute Euskal AEko familiek beren gizarte ingurunea?

23. taula. Euskal AEko familien irudipena gizarte inguruneaz (%)

	Euskal AE			
	1989	1994	1999	2004
Oso ona	39,7	51,4	54,7	65,8
Nahiko ona	13,5	14,9	17,2	14,1
Nahiko kaskartua	45,7	31,5	26,7	18,5
Oso kaskartua	1,1	2,2	1,4	1,6

Iturria Eustat, Bizi Baldintzen Inkesta.

Datuek agerian uzten dute familiek beren gizarte inguruneaz duten irudipena eta benetako egoera bat datozela. Objektiboki ezaugarriak hobetu dira tarte honetan, eta hala antzematen dute familiek eurek, uste baitute gizarte inguruneak hobera egin duela etengabe. Adostasun horren frogara, herrialdekako datuek adierazten dutenez irudipenak gizarte ingurunearen bilakaera bera du, eta izan ere, Bizkaian bai adierazleak baita gizarte ingurunearen irudia ere okerrenak dira, eta Araba eta Gipuzkoako adierazleak, aldiz, onenak dira, bertako herritarrek beren inguruneaz duten iritzia bezalaxe.

4. Bizi baldintzen ikuspegi berri bat

Denboraren joanak eskaintzen duen behatokitik laurogeita hamarrek hamarraldia itxuratu zuten gizarte prozesuak diren moduan ikus daitezke, batzuk urte horien iragana eta beste batzuk ondorena. Hamarraldi honetan hasierak, trantsizioak eta bukerak izan dira, eta edonola ere, etsitzeen eta lorpenen arteko kontrastez josia egon da. Berriz irakurtzen ditugunean Euskal AEko Bizi Baldintzak aztertzeko dituen lan honen orriak gizarte dinamika bat

ageri zaigu aldi honen ezaugarri nagusi beste gutxi gainera: egokitze estrategia subjektiboez ari gara.

Laurogeita hamarretako industria birmoldaketak ikaragarritzko astindua eman zion gizarteari, artean espero baitzen aterabide bat bilatuko zela krisiak baliabide kolektiboetan eragindako arazoetarako, baina handik aurrera porrot egingo zuen fabrikaren inguruan eratutako irudikapen kolektiboak, eta lanari ekin behar izan zitzaion, gaindiezina zirudien egoerari aurre egiteko estrategien bila.

Hamarkada osoan familia asko eta asko ibili ziren hilaren azkenera kostata iritsita, eta hala ere, pertsona askok berriz jo zuten familia nukleora, bertan sortzen zirelako era egokienak gorabehera ekonomiko onorioak arintzeko. Familia nukleorearen inguruan bilbatu zen sare ikusezin baina aldi berean sendo eta zabal hura behar asko betetzeko adina zen, eta ez bakarrik arlo ekonomikoan.

Etxera itzultze horrek, haatik, bestela ikusarazten zuen ingurua, lehenago aukeren eremua izan zena orain arriskuz bete agerraraziz. Etxe eremua eta eremu publikoa, nonbait, bateraezinak ikusten ziren.

Aurrerakuntzaren ideia industria gizarteetako *leit motiva* izan zen bezala, hamarkada honetakoa krisia izan zen, hausnarketa eta jardutearen gidari bilakatu. Lehen ez bezala, aldaketa ez zen gogoko gauza, iruditegi kolektiboan etorkizun hobearren grina pizten zuen zerbait, aitzitik, ezkortasunerako arrazoia zen, krisiaren eta, horrenbestez, segurtasun ezaren baliokide zelako. Hala ere, krisia gizarte bizitzaren testuinguru iraunkor gisa mamitzen zen garai berean agertuz joan ziren gizarte egoera berri moldatzeko estrategiak ere.

Bibliografía

- CIRES (1995) *La Realidad Social en España: 1993-94*. Bilbao, CIRES.
- DEL CAMPO, S. (zuz.) (1993) *Tendencias Sociales en España (1960-1990)*. Bilbao, Fundación BBV.
- EUSTAT (2000) *Euskal AEko Ikuspegi Soziala 2000*. Bilbao, EUSTAT.
- TEZANOS, J. F. (arg.) (1999) *Tendencias en Desigualdad y Exclusión Social*. Madrid, Sistema.